# Bestelako Xedapenak

## ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

**2404**

AGINDUA, 2010eko apirilaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautu zituen 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan jasotako laguntzetarako aurtengo deialdia egiten duena.

2009ko maiatzaren 4ko Aginduaren bidez (2009ko maiatzaren 26ko EHAA, 98. zenbakia) arautzen dira Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak gizarteratze-enpresak sortu eta mantentzeko ematen dituen laguntzak. Horien xedea enpresa horiei laguntza ematea da, haien ezaugarri eta beharrei egokituta. Horien barruan diru-laguntzak aurreikusten dira, gizarteratze-enpresak sortzen dituzten erakunde sustatzaileentzat eta gizarteratze-enpresentzat, iraun ahal izateko.

2009ko maiatzaren 4ko agindu horren 17. artikuluak xedatzen duenez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak urtero egingo du aginduan aurreikusitako laguntzak emateko deialdia, dagokion aurrekontu-esleipena eta eskabideak aurkezteko epea jasotzen dituena. Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuan xedatzen denez, gizarte-sustapena eta gizarteratzea Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eskumena da. Beraz, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari dagokio agindu hau ematea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartua) 49.5 artikuluak ezartzen duenez, ekonomia-ekitaldi bakoitzean, Euskal Autonomia Erkidegorako aurrekontu orokorrak indarrean jartzen direnean, diru-laguntzak emateko arauak eguneratu edo berrikusiko dira, edo, behar izanez gero, programen diru-laguntzen arauak ezarriko dira, eta, bere garaian indarraldirik zehaztu ez zitzaien diru-laguntzetarako deia egingo da.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegorako 2010eko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartu zituen abenduaren 23ko 2/2009 Legea onartuta da-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

**2404**

ORDEN de 30 de abril de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se realiza para el presente año la convocatoria de las ayudas previstas en la Orden de 4 de mayo de 2009, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción.

Mediante Orden de 4 de mayo de 2009, publicada en el BOPV n.º 98, de 26 de mayo de 2009, se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción, que el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social pone en práctica para ofrecer a este tipo de empresas unas fórmulas de apoyo adaptadas a sus particulares características y necesidades. En su marco, se prevén subvenciones destinadas a las entidades promotoras para la creación de empresas de inserción y subvenciones dirigidas a las propias empresas de inserción para su sostenimiento.

El artículo 17 de la citada Orden de 4 de mayo de 2009 establece que el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, mediante Orden de su Consejero, convocará anualmente las líneas de ayudas previstas en esta Orden, con expresión de la dotación presupuestaria correspondiente y del plazo de presentación de solicitudes. En virtud del Decreto 20/2009, de 30 de julio, del Lehendakari, de modificación del Decreto de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, la materia de promoción de la inclusión social corresponde al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales. Por lo tanto, es competente para dictar la presente Orden la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales.

Por otra parte, el artículo 49.5 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, establece que, una vez en vigor los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio económico, se procederá a actualizar, revisar o, en su caso, establecer las normas reguladoras de la concesión de las subvenciones de los programas y a realizar la convocatoria correspondiente de aquéllas que fueron en su momento reguladas con vigencia indefinida.

Por todo ello, habiéndose aprobado la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de

goenez, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautu zituen 2009ko maiatzaren 4ko Aginduaren 17. artikuluan jasotako gaikuntza erabiliz, hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua**.–* Laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautu zituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan jasotako laguntzetarako deia egitea 2010. urterako.

***2. artikulua.**–* Eskabideak aurkezteko epea agindu hau indarrean sartzen denean hasiko da, eta 2010eko urriaren 30era arte iraungo du.

***3. artikulua.**–* 2009ko maiatzaren 4ko Aginduaren xedea betetzeko baliabide ekonomikoei dagokienez, horren 23. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Aginduaren xedea betetze aldera, 2010. urtean gehienez 10.281.280 euro erabiliko dira guztira horretarako, honela banatuta: 4.431.280 euroko ordainketa-kreditua 2010eko ekitaldirako; 2.600.000 euroko konpromisoko kreditua 2011ko ekitaldirako; 2.400.000 euroko konpromisoko kreditua 2012ko ekitaldirako; eta 850.000 euroko konpromisoko kreditua 2013ko ekitaldirako.

***4. artikulua.**–* Laguntza horiek jasotzeko eta emateko baldintzak eta epeak 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan azaltzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa**.–* Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka berraztertzeko aukerako errekurtsoa jarri ahalko diote interesdunek Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

***Bigarrena**.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 30a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

Euskadi para el ejercicio 2010, y en ejercicio de la habilitación prevista en el citado artículo 17 de la Orden de 4 de mayo de 2009, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción,

RESUELVO:

***Artículo 1**.–* Convocar, para el año 2010, las ayudas previstas en la Orden de 4 de mayo de 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción.

***Artículo 2.**–* El plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas comenzará a contar desde la fecha en que entre en vigor la presente Orden y se extenderá hasta el 30 de octubre de 2010.

***Artículo 3.**–* Por lo que se refiere a los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto de la Orden de 4 de mayo de 2009, se estará a lo dispuesto en su artículo 23.

A los efectos del cumplimiento de su objeto, se destinará para el año 2010 un total máximo de 10.281.280 euros, distribuido mediante un crédito de pago para el ejercicio 2010 de 4.431.280 euros, un crédito de compromiso para el ejercicio 2011 de 2.600.000 euros, un crédito de compromiso para el ejercicio 2012 de 2.400.000 euros y un crédito de compromiso para el ejercicio 2013 de 850.000 euros.

***Artículo 4.**–*– Las condiciones para el acceso y la concesión de las mencionadas ayudas serán las previstas en la referida Orden de 4 de mayo de 2009.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera**.–* Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

***Segunda**.–* La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de abril de 2010.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.